

# ARTE DRAMATIKO ESPEZIALITATEA

## **Ibilbidea: “Interpretearen sormen-autonomiarako tresnak”**

### **I. Sarrera**

Izenak adierazten duenez, ibilbideak aktorearen prestakuntza osatzea du helburu. Prestakuntza horren bidez, aktoreari tresnak emango zaizkio, sormen-prozesuei autonomia handiagoz ekiteko, interpreteak sustatutako proiektuak direla, kolaborazioak direla edo beste pertsona batzuen proiektuak direla. Arte dramatikoa kultura-arlo konplexua da, eta gogorra da profesionalki aritzeko. Beraz, Dantzertiko zuzendaritza-taldeak uste du beharrezkoa dela ikasleei ahalik eta prestakuntza zabalena ematea, profesionalgaiari laguntzeko, lan-bizitzari eta bizitza artistikoari ahalik eta sormen eta autonomia handienarekin ekin diezaien.

“Interpretazioaren sormen-autonomiarako tresnak” ibilbidea, hortaz, zenbait diziplinako (irratia, eszena-zuzendaritza, sormena eta objektu-teatroa) hautazko irakasgai multzo bat da, eta horiek interpretearen prestakuntza osatzen laguntzen dute. Halaber, ikasleei ikuspegi bat baino gehiago eskaintzen dizkiete, eszena-praktikari dagokionez. Horrez gain, teatroko ezagutzak beste baliabide batzuetan aplikatzeko prestakuntza ematen diete.

Hona hemen ibilbidea osatzen duten hautazko irakasgaiak:

- 1. Sormen-irratia**
- 2. Objektuak manipulatzeko**
- 3. Aktore zuzendaritzaren hastapenak**
- 4. Espazio esperimentalak**

# Ibilbidearen hautazko irakasgaien deskribapena

## 1. Sormen-irratia

### **a) Irakasgaiaren justifikazioa:**

Ohikoa da gaur egungo artistek teknologia berrien bidez ahots-lana ikertzea eta esperimendatzea hizkuntza berriak esploratu nahian. Horren harira, sormen-irratiko lanak aukera ematen du irrati-fikzioaren historiako mende oso bateko tradizioa mikrofono-ahotsak zein gaur egun ahots-edizioko programek ematen dituzten aukerekin elkartzeko.

Bereziki praktikoa den irakasgai hau irratiak eskaintzen dituen sormen-aukerak eta aukera performatiboak aztertzean eta aurkitzean datza. Irrati-hizkuntzako elementuak aztertuko dira: ahotsa, musika, soinu-efektuak, isiltasuna. Gure ahotsaren aukerekin jokatu dugu eta teknologia erabiliko dugu ahotsaren gaitasunak ugartzeko eta eraldatzeko. Halaber, irrati-fikzioa entzun eta irakurriko dira, bai eta sakonki aztertu ere. Jarraian gure irrati-teatroko pieza propioa sortzeko, sormen-prozesu osoan lan egingo dugu, hasieratik bukaerara: ideia, gidoia, lokuzioa, musika eta soinuak hautatzea. Amaieran, irrati-estudio batean grabatuko dugu.

Bestalde, artisautzarekin lotuago dagoen lan batean sartuko gara irrati-performancearen bidez. Gure gorputza, tresnak eta musika, soinuak eta zarata sortzeko gailuak erabiliko ditugu, eta alegiazkoak ez diren dramaturgien bitartez, gure soinu-obra aurkeztuko diegu ikus-entzuleei.

### **b. Irakasgaiaren izaera:**

Teoriko eta praktikoa

### **c. Edukiak**

#### 1. LOKUZIOA

- Zer da lokuzioa? Garai bateko esatariak/gaur egungo esatariak
- Intentsitatea, tonua, tinbrea.
- Bokalak, kontsonanteak. Irakurmena, ebakera, azentua...
- Erritmoa, ahotsaren inflexioak, isiluneak, arnasketa...
- Ahots motak, pertsonaia motak, ohiko pertsonaiak
- Mikrofono-ahotsaren ezaugarriak

## 2. IRRATI-GENEROAK

- Programa ezberdinen ezaugarriak eta egitura.
- Estiloak eta joerak. Estilo-liburua.
- Irratiko lanbideak.

## 3. JINGLE-A ETA PUBLIZITATEA

- *Jingle*-aren ezaugarriak, berezitasunak eta historia laburra.
- Lehenengo *jingle*-ak eta gaur egunekoak.
- Esloganaren eta musikaren garrantzia.
- Hitzaren eta musikaren arteko erlazioa.

## 4. TEKNOLOGIA BERRIAK ETA IRRATIA

- Grabazio- eta programazio-programak
- Hainbat artxibo mota
- Musika eta soinu pistak.

## 5. IRRATI-FIKZIOA: IRRATI NOBELA/ IRRATI-TEATROA

- Historia laburra
- Teatroko piezak, irratiko gidoiak eta filmetako gidoiak. Horien berezitasunak eta aldeak.
- Generoak, pertsonaiak, egiturak (kapituluak, eszenak...)
- Musika, zaratak eta ahotsak aukeratzea.
- Grabazioa

## 6. IRRATI-PERFORMANCEA

- Gure eguneroko objektuen musikaltasuna.
- Gure gorputza eta soinuak.
- Alegiazkoak ez diren dramaturgiak.

### **d. Ebaluazio irizpideak**

- Irratirako irakurketa, lokuzioa eta ebakera ulertzea, lantzea eta kontrolatzea.
- Ahots propioaren aukerak ezagutzea eta bikoiztea, mikrofono ahotsaren ezaugarriak aintzat hartuta.
- Irrati-hizkuntzan erabiltzen diren zenbait elementu ezagutzea; nagusiki, sormenarekin eta irradi-fikzioarekin lotuta daudenak.
- Irratian lantzen diren fikzio-genero batzuk ezagutzea, entzutea eta identifikatzea: irradi-nobela, irradi-teatroa, jingle-a...
- Irrati-gidoi baten egitura ezagutzea eta lantzea, irradi-teatroko ezaugarri espezifikoak desberdinduz.
- Irrati-teatroko gidoi bat sortzea, idaztea eta antzeztea taldeka.

- Musikaren, soinuaren eta isiltasunaren arteko loturak esperimentatzea eta ikertzea
- Soinu-performance bat sortzea eta antzeztea.

## **2. Objektuak manipulatzeko**

### **a. Irakasgaiaren justifikazioa:**

Dantzertiko arte dramatikoko ikasketek agerian uzten dute interpretazioaren alorrean dauden era bateko eta besteko adierazpen-formekiko interesa. Arte-eszenikoen mundu bisual eta sinboliko batean sartzeko beharrezkoa da aktorea prestatzeko. Objektuen eta txotxongiloen interpretazio-teknikak aukera ematen du hainbat eta hainbat kulturatan aspaldi-aspaldiko moduan erabiltzen den hizkuntza bat sartzeko. Protagonista materialek osatutako estetikak ikasleek esploratu ez duten mundu bat sortzen du.

### **b. Izaera teorikoa edo praktikoa:**

Teorikoa eta praktikoa

### **c. Edukiak**

Hautazko irakasgai hau manipulazioaren oinarriko printzipioetarako hatapen gisa diseinatu da teknikoki: disoziazioa, puntu finkoa, begirada, arnasketa, esplorazioa eta objektuari energia transferitzea landuko dira nagusiki, objektuaren munduaren eremu semantikoaz eta metaforikoaz gain.

Hainbat eta hainbat aukera bilatuko dira txotxongiloak eta objektuak interpretatzeko teknikari dagokionez, bizirik gabeko objektu bati bizia emateko gai den manipulatzaileraren egoera psikofisikoaren bitartez. Manipulatu den objektu bakoitzarekin ezagutzea, sortzea, berriz eratzea eta mugarik gabe esperimentatzea da helburua. Ariketa fisikoak egingo dira egoera egokia lortzeko, manipulatzailerak gorpuztasuna sor dezan, manipulatu eta ahotsa erabiliz, objektuari bizia emateko.

Horretarako, interpretazioa landuko da, honako hauei dagokienez: eguneroko objektuak, sortzen diren unibertso metaforikoak, hainbat materialekin ikasleek sortutako txotxongiloak, zuzeneko manipulazioa, itzalen teatroa eta banakako, binakako eta hirunakako manipulazio zuzena.

Ikasleek dramaturgia-pieza txikia txikiak sortu eta taularatu beharko dituzte, landutako teknika guztiak erabiliz.

### **d. Ebaluazio-irizpideak**

- Manipulazio-teknikaren oinarriko ezagutzak aplikatzea banaka eta taldeka, elkarrizketa artistiko batean defenda daitekeen hizkuntza propio eta integratua garatzeko.
- Objektuen-manipulazioaren bitartez, ikus-mundu bat eta narrazio-mundu bat transmititzeko gaitasuna lortzea.

- Proposatutako estetiken kontzientzia eta koherentzia adieraztea.
- Esperimentazio-proiektuari egokitutako lan-metodologia bilatzea objektu bat edo txotxongilo bat manipulatzeko.
- Eguneroko edozein objektu manipulatzeko sentiberatasuna eta gaitasuna lortzea, eta dramaturgia eta taularatzea bilatzea.
- Manipulazioaren mugimenduaren zehaztasuna eta argitasuna ulertzea, bai eta manipulatzailaren gorputzaren eta arnasketaren garrantzia ere, objektu bati bizia ematea dagokionez.
- Ikus-dramaturgia bat defendatzea eta sortzea objektuak eta txotxongiloak manipulatzeko oinarrizko elementuekin.

### **3. Aktore-zuzendaritzaren hastapenak**

#### **a. Irakasgaiaren justifikazioa:**

Aktore gisa, Dantzertiko ikasleek zenbait lan-prozesuri aurre egingo diete, eszena-zuzendari ugariarekin, ikasketak egin bitartean nahiz ikasketak amaitzean. Zuzendarien lan egiteko modua, haien pentsamendu-eskema, haiek garatzen duten ekintza eta aktore-lanarekiko aldeak ulertuz gero eta haien zailtasunak esperimentatuz gero, ikasleak etorkizunean hobeto integratu ahal izango dira lantalde batean. Halaber, eszena-konkrezioari eta hura aurrera eramateari buruzko gogoeta praktikan lantzeari esker, interpreteak libreago eta autonomoago izango dira beren proposamenak egiteko orduan, zuzendariaren figura saihesteko asmorik gabe.

#### **b. Izaera teorikoa edo praktikoa:**

Teorikoa eta praktikoa.

#### **c. Edukiak:**

Irakasgaiarekin hasteko, egin beharreko lana mugatu beharko da, eta, irakasgai honetan, nolana ere, testu dramatiko batetik abiatzen da. Testu horretatik abiatuta, haren ezaugarrietan oinarrituta eta horiekin lotuta, irakasgaiko irakasleek aplikatu beharko diren metodologia-bideak planteatuko dituzte, baita ikasle guztiek nahitaez bete beharreko lan-egutegi bat ere.

Ikasleek bi eratan lan egin beharko dute irakasgaiari, beren lanen zuzendari gisa eta beren ikaskideen lanen aktore gisa.

Hastapen-saio batzuetan, ikasle bakoitzak bere eszena-proposamenei, hipotesi metodologikoei eta printzipio etiko, tekniko eta estetikoei emango dizkien ikuspegiak eta azterketak partekatuko dira. Saio horien ostean, irakasgaiaren alde praktikoa helduko da. Alde horretan, proiektuak ikasgelatik kanpo garatu beharko dituzte, eta ikasgelan, prozesuaren egoera azaldu eta, irakaslearen laguntzaz, banaka lan egingo dute (gainerako ikaskideek egiten den lana aztertuko dute).

Bereziki praktikoa denez eta ezinbestean denbora behar duenez, bai eta

ikasleek aktore-zuzendaritza lanari ekiteko era ezberdinak ezagutzea interesgarria denez ere, irakasgaia bi irakaslek emateko aukera planteatzen da. Irakasleek paraleloan egingo dute lan, eta taldea bi talde txikiagotan banatuko dute. Horrela, irakasle bakoitza azpitalde bakoitzarekin arituko da lauhileko bakoitzean

#### **d. Ebaluazio-irizpideak:**

- Eszena-proposamen koherenteak, egingarriak eta argudiatuak sortzea.
- Sortzaile gisa beren burua zalantzan jartzeko gaitasuna lortzea.
- Aktore-zuzendaritza lana betetzeko behar diren oinarrizko gaitasunak garatzea.
- Beste profesional batzuen aurrean lan egiteak dakarren herabetasuna eta beldurra gainditzea.
- Metodologia logikoak, erabilgarriak eta planteaturiko helburuekiko koherenteak aplikatzea.
- Malgua izatea eta beste artista batzuen proposamenei arreta jartzea, horiek aintzat hartzea eta erabakiak hartzea finkatutako helburuetan oinarrituta.
- Zalantzan jartzeko gaitasuna garatzea, eta, egokia balitz, norberak finkatutako helburuetan oinarrituta.
- Frustrazioa eta etsipena menderatzen ikastea.
- Estrategia berritzaileak bilatzea planteatutako helburuak lortzeko.

### **4. Espazio esperimental**

#### **a. Irakasgaiaren justifikazioa:**

Arte Dramatikoko Interpretazioko espezialitatearen curriculuma irakasgai multzo batek osatzen du. Horietako askok sormen-ariketen bidez emandako baliabideak gauzatera bideratutako atal bat dute. Ondorioz, sormen-ariketen ikuspegia irakasgaia ematen duen irakasleak zuzentzen du, irakasgai zehatz baten testuinguruaren barruan. Ikasleek esperimentazio-espazio libreago eta irekiagoa edukitzeko beharra dutela egiaztatu dugu. Espazio horren bidez, bere intereseko eremua, estetika eta metodologia esperimentatu behar dituzte; hori bai, interes horiekiko ahalik eta gertukoena den tutore baten laguntzaz.

#### **b. Izaera teorikoa edo praktikoa**

Teorikoa eta praktikoa

#### **c. Edukiak**

Irakasgaiaren edukia ikasleak aukeratzen duenez, atal honetan egokiagoa da jarraipen-metodologiari buruz hitz egitea: irakasgaiari ekiteko, taldeko bi bilera egiten dira, eta, horien bidez, zenbait baliabide ematen dira, ikasleak bere esperimentazioaren gaia teorikoki zehazteko, sakontzeko eta egiaztatzeko. Esperimentazio-proiektuko zer lagin mota aurkeztu (prozesuaren amaieran)

erabakitzeko baliabideak ere partekatuko dira, aurkezpena egiteko eguna iristean esperimentazio hori dagoen unearekiko zorrotzak eta errespetutsuak izateko xedez. Taldeko saioen ondoren, ikasle bakoitza banakako edo taldeko prozesu batean murgilduko da, haiek nahi bezala. Prozesu horretan, tutoreak lagunduko du, gutxienez hiru tutoretza-saio eginez azken aurkezpenaren aurretik; horiez gain, ikusleen aurrean amaierako erakustaldia egingo da (barneko edo kanpoko ikusleak izango diren erabaki behar da), eta, horren ostean, tutoretza-saio bateratu bat egingo da.

**d. Ebaluazio-irizpideak:**

- Banakako eta taldeko lan-irizpideak aplikatzea, elkarrizketa artistiko batean defenda daitekeen hizkuntza propio eta integratua garatzeko.
- Gaitasuna lortzea proposamen kontzeptuala zehazteko eta sakontzeko.
- Erabilitako estetiken kontzientzia eta koherentzia adieraztea.
- Egin nahi den esperimentazio-proiektuari egokitutako lan-metodologia bilatzea.
- Sormen-lanerako autonomia sendotzea.
- Feedback-ak integratzeko gaitasuna lortzea.
- Ikusleei erakutsi beharreko esperimentazio-proiektuen aurkezpenak produktu artistiko baten aurkezpenak ez bezalakoak direla eta izan behar direla ulertzea.
- Aurkezpena ikusleen aurrean eta zorrotz egitea.